

<b>Arau orokorrak:</b>	<b>Ondorio zuzentzaileak eta hezitzaileak:</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Txamarra eta motxila dagokigun pertxan utziko ditugu.</li> <li>- Eskuak garbitu eta izendatu diguten aulkian eseriko gara.</li> <li>- Janaria jangelan jango dugu ezer kanpora atera gabe.</li> <li>- Nahiko denbora izango dugu bazkaltzeko, beraz, lasai jango dugu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>1- Abisatu eta araua gogorarazi.</li> <li>2- Gaizki egin zuzendu (txamarra zintzilikatu, eskuak garbitzera joan...).</li> <li>3- Errepikatzen bada, hausnarketa egin jangelako zaintzaileekin.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Arduradun lanak egin behar ditugunean: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ura behar denean, bila joango gara.</li> <li>• Mahaikideei ogia banatuko diegu.</li> <li>• Jatea amaitutakoan, platerak erdian bilduko ditugu zaintzaileak jasotzeko.</li> <li>• Mahaia garbituko dugu, zapia modu egokian erabiliz.</li> </ul> </li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>1- Abisatu eta araua gogorarazi.</li> <li>2- Araua landu, jangelako zaintzaileekin.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Jan ohitura onak izango ditugu: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Aulkian ondo eseriko gara.</li> <li>• Ahoa beteta ez dugu hitz egingo.</li> <li>• Mahai tresnak ondo erabiliko ditugu.</li> <li>• Ateratako jaki guztiak probatuko ditugu.</li> <li>• Zorua garbi mantentzen saiatuko gara, janaria lurrera bota gabe.</li> </ul> </li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>1- Abisatu eta araua gogorarazi.</li> <li>2- Araua landu, jangelako zaintzaileekin.</li> <li>3- Errepikatzen bada, familiari idatziz jakinarazi.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Zaintzaileak esan arte eserita egongo gara.</li> <li>- Bazkal ondoren hortzak eta eskuak garbituko ditugu.</li> <li>- Korrika egin gabe aterako gara.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>1- Abisatu eta araua gogorarazi.</li> <li>2- Araua landu, jangelako zaintzaileekin.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Sukaldariari eta zaintzaileei errespetuz eta modu egokian hitz egingo diegu. (Agurtu, mesedez, eskerrik asko... esanez).</li> <li>- Zerbait beharko bagenu zaintzaileei eskatuko diegu deiadarririk egin gabe.</li> <li>- Mahaikideak zein beste kideak errespetuz eta ondo tratatuko ditugu. (Barkatu, mesedez, eskerrik asko... esanez).</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>1- Abisatu eta araua gogorarazi.</li> <li>2- Araua landu, jangelako zaintzaileekin.</li> <li>3- Errepikatzen bada, familiari idatziz jakinarazi.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Eskola eremutik irteteko baimena idatziz ekarriko dugu.</li> <li>- Jostailuak zaintzaileei eskatuko dizkiegu eta amaitzean itzuli.</li> <li>- Zaintzaileek esandako eremuan jolastuko dugu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>1- Abisatu eta araua gogorarazi.</li> <li>2- Araua landu, jangelako zaintzaileekin.</li> <li>3- Errepikatzen bada, familiari idatziz jakinarazi.</li> </ul>

**GOGORATU...** Ikastolak ezin duela ordezkatu gurasoen ardura umeen heziketan, jan ohituren oinarriak etxean ezartzen direla eta ikastolak osatu eta jarraipena ematen diela.